

Gure erriko guda apunteak

Alderdi, 175. zk., 1961-10.

Egun oietan eldu zait eskuetara liburu txiki bat. "Euskal Mutillak Armetan" izena du, ta *Auspoa* liburutegiak argitaratu du Tolosa'n. Ez da nobela, ezta ixtori liburua ere; bañan ixtori ezur asko dauka, ta makiña bat kontu ta nobelaren asiak bai.

Franzisko Apalategi, josutarra, 1867'garrenean jaio zan donostiar bat, da egillea. Karlisten bigarren gerrako gertaera oiek jasotzen 1922'an asi zan. Guda artan ibilitako agure bati ta besteri galdetu orduko gertaera ta oroimen asko jaso zituan. Aita Apalategi euskaltzale jatorra 1948'an il zan Loiola'n, bere asmoak bete baño lenago, ta bere paperak Gipuzkoa'ko Diputazio ta San Telmo'ra joan ziran. Orain *Auspoa* asi zaigu paper oiek argitaratzen, eskerrak Zabala'tar Antonio ta beste josutar euskaltzale jator batzuei.

Aita Apalategi'ren lan au ez da osorik bukatua, bada. Bañan ba'dute paper oiek berez indar eta esanai berezi bat: bestela betiko galduko ziran gure erriko oroimen asko geratu dira gure erriaren buruari, eta ikaragarritzko kemena dakarte tarteka. Joskera baten zai zauden gure erriaren ixtori zati oiek; gertakisunak bildu zituena joan zaigu, zoritxarrez, bañan bere anaiak jaso dituzte ta gure erria bizi dan arte ez dira ilko.

Nik ez nitun Aita Apalategi'ren liburua irakurtzen egin nituan apunteak iñora bialtzeko asmoarekin artu. Baño gero pentsatu nuan danok alegindu bear degula gertakisun oiek zabaltzen, ia gure erriko izatearen interesa ta gogoa gure tartean sortzen dan. Eta bidez ba'liteke, gañera, liburua bera irakurtzeko gogoa ere norbaiten buruan sortzea.

Gure erriak ba'dauka burua, buru pixkor eta aundi bat, bañan gertakisunak gogoan artuko ba'ditu lenen esan bear zaizka. Iñork esaten ez dizkion kontuak ezin ba'gogoan euki. Ta guk, zoritxarrez, gauza gutxi esan izan ditugu; "besteak esan ditzatela, or konpon", bezelako purrustera bat egin izan oi degu beti. Ta besteak esan ez edo berei dagozkien eran esan oi izan dituzte gure kontuak. Garaia da, ba, gure kontuak guk ikusten ditugun bezela gerok esaten ustea.

Bestetik, errietako gertakisunak ez dira beti balaki eta pozgarriak izaten, bañan ez daukagu zergaitik gururik iñorreri gorde bearrik, lotzaz alegia. Esan oi dute norbait edo zerbait egiaz maitetzeko lenen ondo esagutu bear dala. Gure erria ondo esagutzen al'degu? Ez al'gera askotan, uste gabe, izan nai degun pitxi polit bat bezela azaltzera alegintzen. Izan nai degun bezela izateko asmoarekin jokatzea ondo dago, bañan geran bezela gure burua erakusteko kezkarik ez genduke bear. Ez gera onenak izango, bañan egiazkoak izango gera. Ta egiazkoak izaten ba'gera bide zuzenean goaz.

Ara nik liburu onetan egin dituzten apuntetxo batzuek, eta gure erriari begira ari gerala ez aztu.

Bildurra

"Neri –dio *Tomas Lizarralde*'k– anka (balaz) jo ta ezin ibilli ta geratu nintzan (bakarrik) gaztaña tarteko zulo orbelez betetako batean. Beltzak (eiberau) ibilli ziran nere inguruan bañan gaba zan ta ez ikusi. An negoala nere bizitz guztiko gaitzakeriak gogoratzen zitzaizkidan, Jainkoari barkamena eskatu, Ama Birjiñari otoitz egin... Naigaberik aundiena auxe zan: orain emen ilko nak ta ez dute nere gurasoak Jakingo nun il naizen. Auxe zan danetan mingarriena. Noizbait ere inguruan norenbait zebilela entzun nuen. ¿Beltzak ote dira berriz ere? Ni ixilik. Nere aldera zetozen. Entzun nien: nereak zirala ta deadar egin nuen. "Emen dek" esan zuten. Etorri dira ta batek poxpol bat pixtu du. Bereala beltzaren tiroak entzun ziran. Etziran andik urruti. "Itzali zak". Itzali zuen. Berriz ere tiro salla bat. Gu ixillik. Etzuten geiago bota. Lagun batek bizkarrean artu ta aldapa gora eramien ninduen: Goyan Iturbek: Ba'al dakartzute" "Bai" "Ta nola dator?" "Ondo. Ankean jo dute" "Ez bildur izan" esan ziran Iturbe berak. "Ankako zauriagatik ez dek iñor iltzen ta. Ya, artu". Ta ezpañetan zatoaren muturra ipiñi ziran: "Eran". Bereala esku-eskallera batean jarri eta lotu egin ninduten ta aldapa bera Oikiyara".

"Arkaitzetik parapetora maztiya zan ageri ageriyen" dio *Patxi Juaristi*'k, azkoitiarra. "Abiatu giñan laxterka laxterka goitik bera, balak nun nai zis zas zebiltzen. Nere aurre zijoan Arretxeko aizkotierra zanja zuloaren ertzan zegoen barrura sartzeko. Ni balak anka ezurrian jo ninduenean, deadar egin ta Arretxekoak atzera begiratuaz esan zidan: "Jo al aute?" Bada orduantxe bertan berari lepotik sartu sayetsaraño. Ala ere biak zanja barrura gure burua murgill bota ta bat batean ondoren geratu giñan. Arretxekoak deadar egiten zuen, ta nik esaten nion: "Motell, ago ixilik; emen il bear badiagu, ementxe ilko gaituk, bañan ago ixilik". Nik ere nere zauria buztiñekin estali nai bañan eskua nekatu ta berriz ere odola bazijoan. Ebi asko egin zuen ta ura goiko zanja aldetik gu geuden beko aldera zetorren, ta goiko aldean zauritutakoen odolekin gorriturik zetorren. Buztin gorri orrekin asi nintzan, bada, nere odola geratu nayian".

Arteaga'tar *Jose Antonio*'k esana; San Martiñetan, 1874, Andoain'dik Goiburua bidetik Oyartzun bidean zijoaztela: "Otz eta ebia zan. Gero elurra. Galtzarrietara igo giñean, elurra ia belaunetarañokoa. Gure kapitanak zaldia bazun, bañan otzagatik oñez zijoan. Orrela, gure mutil bat otzaz ta aulkeriz lurrera erori da. Kapitanak zaldi gañera jasotzeko, gendun ta baginjoazen, gu ere ez oso sendo. Gero beste bat lurrera, geroxeago bestea. Gure zalai gañekoa ere erori ta an utzi gendun. Noizbait ere Lesakara eldu gera. Illun zan. – An bertako gizonak irten ziran guk bidean erori ta utzitakoen billa. Batzuk illak zeuden, beste batzuk sukondoan pixtu ziran. Artean udarako blusak genitun. Lo".

Arteaga berak esana: "Relevoak (aldeketak) lau ordutik lau ordura. Arabatarrak txandan. Lubakitik mendi gora ta bera agerian. Baja geienak an izaten genitun (Somorrostro'n). Andoaindar beti granadak besoa purrukatu, ta beste eskuekin eutsi ta aurrera. Besoa moztu ziyoten bañan sendatu".

Diziplina

Arteaga berak: "Agostuko 22-23 Ataun'en lo. Tolosara. Emendik Andoainera iges aldi bat egin genuen. Illunabarreko *listara* ez giñala etorri ta "arrestados" Tolosako justizi palazioan. 24 - Urrungo egunean San Bartolomé Ibarako jaiak. Nere gurasoak ta osabak jun dira T. Coronel'engana ta azkatu gaituzte.

Alza'ko Laureano'k esana: "Ni Otxaboren partidari ibilli nintzan. Otxabo mikeleteetan sarjento izana, konpañiko diruak jokuan galdu ta guregana etorri zan Kapitan egin zuten".

Azkoiti'ko Patxi Juaristi'k esana: "An geundela (Naparroan) ta beltzak aurrean, esan zigun Iturbe'k: "Begira, mutillak; gerra gerra da gero. Kontuz ibilli bakoitza bere lekuan. Iñork alde egiten badu ezpata onekintxe ilko diat".

Tomas Lizarralde'k: "Lenengo agintari (1873), Xanjuan, ttattar beltz bat, guda gizon izandakoa. Euskeraz zer edozer (gutxi) zekien. Araoz'en -50'en bat mutil izango giñan-asi zan: "Conviene saber la ordenanza militar..." Ekin zion erderaz irakurtzen. Gero euskeraz esan zigun: "Kaboari paltatzen dionari paloak. Sarjentoari paltatzen dionari, lau tiro... Niri paltatzen diranari... ez dakit zer egingo diogun: "Guk parrari ekin genion. Etzitzayon atsegin izan. Laster alde egin zun ta Agustin Txikiren mendean sartu giñan".

Gogokeriak

Arteaga berriz: 1874'go otsailla. "Illunakoan sartu ziran lubakian, bai an billatutakoak bayonetaz josi ere, bañan barrengoak gogor egin zuten, ta gureen lana laperrik. An il ziguten Jose Petritza, Zubietako semea, atea aizkoraz joka ari zala. Jose gizarajoari gerrikoan ontz urrezkoak billatu zizkioten. Bai ta urrengo egunean mikeleteak deadar egiñaz ziguten: "orlako asko al dituzute? Bialdu, bialdu onera. Pozez artuko ditugu ta".

Arantzasun: "Santa Kruz Arantzatsura eldu zanean, leyoan zegoen Motxon gizaraxoa, partidari begira. "Atoz" esan zion apaizak. Orrelako ta alako egin zenun zuk ta berrogei ta amar palo artu bearko dituzu. Santo Kristo'n eman-erazi zizkion. (Sindika'ko etxeoandreak esan zizkidan).

Lizarralde'k esana: "Geroztik, Pernando Arayara tella egintzara zijoala, Zabalo'k arrapatu du ta baita makilkada taldi ederra eman ere. Utzi zutenean omen zion: "Gizona orrela uzteko obe zenuten il". "Il nai dek?" esan zin Gerosoko kaiku batek ta tiro bat jo ta an utzi zuen".

Jose Irazu'k esana: "Egun artako zalapartagatik Antxusa gizajoa il zuten. Goyaz'en. An giñan il toki inguruan formatuta. Lau tiro bota ta oraindik oso ill etzala ta belarri ondoan eman zioten beste tiro bat. Orduan, guk, inguruan giñanak, ildakoaren ondolik ibiltaldia egin bear genduela. Itxil ixilik jun giñan, illaren eskui aldetik eta aldamenen giñala, kapitanak esan zun: "Vista a la derecha", alegia guztiok begiratzeko Antxusa izan zanari".

Gertakisun oiek irakurri ta gero, ez al'dezu, irakurle, zure erria geiago maite?

Beste apunte asko artu ditut *Euskal Mutillak Armetan*'dik, bañan uste gabe asko luzetu naiz. Ba'dago or makiña bat argi-bide. Geiago ikusi nai duanak liburua billa dezala. Ez du ez denborik ez dirurik galduko.